



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

Imanol Zubizarreta Arteché

**Resolución 4/2022 ebazpena**

Recurso 13/2021 errekurtsua

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

FARMADOSIS SLk enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri du kontratazio mahaiaren 2021eko azaroaren 9ko ebazpenaren aurka. Izan ere, ebazpen horren bidez, FARMADOSIS SL enpresaren proposamena kanporatua izan zen adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan eta eguneko zentroetan COVID-19ari aurre egiteko norbera babesteko ekipamenduak (NBE) eta osasun-materiala hornitzeko kontratua adjudikatzeko prozeduraren (2021/61 espediente) 1. sortatik. Horri dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por FARMADOSIS S.L. contra la resolución de la mesa de contratación de 9 de noviembre de 2021 por la que se excluye su proposición del lote 1 del procedimiento de adjudicación del contrato de suministro de equipos de protección individual (EPIs) y material sanitario para hacer frente a la COVID-19 en los centros residenciales y centros de día para personas mayores y personas con discapacidad (expediente 2021/61), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** Auzitegi honetako erregistro elektronikoa 2021eko azaroaren 30ean aurkeztutako idazkiaren bidez, FARMADOSIS SL enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen idazpuruan aipatutako egintzaren aurka.

**BIGARRENA.-** Auzitegiak Gizarte Politiketako Departamentuari igorri zion errekurtsua, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente eta dagokion txostena eskatu zizkion (abenduaren 10ean jaso ziren).

**HIRUGARRENA.-** SPKLren 56.3 artikulua betez, BARNA IMPORT MÉDICA SA enpresari helarazi zitzaion errekurtsua, bost egun

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 30 de noviembre de 2021 FARMADOSIS S.L. interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución.

**SEGUNDO.-** El Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 10 de diciembre.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, se dio traslado del recurso a BARNA IMPORT MÉDICA S.A. para que en el plazo de



balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan zitzan. Honek alegazioa aurkeztu zuen, Auzitegiaren erregistroan abenduaren 21eko datarekin sartu zen idatziaren bidez.

cinco días hábiles pudiera formular alegaciones. Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 21 de diciembre.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

## **FUNDAMENTOS DE DERECHO**

### **Errekurtsoaren onargarritasuna**

### **Admisibilidad del recurso**

#### **LEHENENGOA.- Xedea.**

Errekurtsoa jarri da lizitatzailer bat kontratu baten adjudikazio prozeduratik kanpo uzteko erabakiaren aurka (balio zenbatetsia: 2.332.740 euro).

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 a) eta 2 b) apartatuetan.

#### **BIGARRENA.- Eskumena.**

Errekurtso hau ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

#### **HIRUGARRENA.- Epea**

Errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta errekurritutako akordioa azaroaren 9an jakinarazi zela.

#### **LAUGARRENA.- Legitimazioa.**

Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, parte hartu duen lizitazio batetik kanpo uztea aurkaratzen baitu.

#### **PRIMERO.- Objeto.**

El recurso se interpone contra la exclusión de un licitador del procedimiento de adjudicación de un contrato que tiene un valor estimado de 2.332.740 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 a) y 2 b) del artículo 44 LCSP.

#### **SEGUNDO.- Competencia.**

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

#### **TERCERO.- Plazo.**

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que el acuerdo recurrido fue notificado el día 9 de noviembre.

#### **CUARTO.- Legitimación.**

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que ha concurrido.



### Auziaren mamia

**BOSGARRENA.-** 2021eko urriaren 13ko erabakiaren bidez, adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan eta eguneko zentroetan COVID-19ari aurre egiteko norbera babesteko ekipamenduak (NBE) eta osasun-materiala hornitzeko kontratazio espediente onetsi zuen Diputatuen Kontseiluak, bi sortatan banatuta: hautsik gabeko nitrilozko eskularruak (1. sorta) eta FFP2 NR maskarak (ez KN95) (2. sorta).

Baldintza agirik ezartzen dute kontratua soilik adjudikatuko dela formulak aplikatuz ebalua daitezkeen irizpideen arabera. 1. sortaren kasuan, irizpide bakarra prezioa da. Ez da balio judizioari lotutako irizpiderik aurreikusten, eta, beraz, lizitatzailleek BAT zenbakidun artxibo elektronikoa eta HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa soilik aurkeztu behar zituzten.

Preskripzio teknikoaren agiriaren 2. apartatuak hornitu beharreko norbera babesteko ekipamenduen eta osasun-materialaren zehaztapen teknikoak definitzen ditu:

*“Artikulu guztiek bat etorri beharko dute agiri honen eranskinean jasotzen diren araudiarekin eta baldintza teknikoekin. Ez da aldaketarik onartzen eskainitako produktuetan.*

*Kontratua norbera babesteko ekipamenduek eta osasun produktuek osatzen dute.*

*Agiri honetan zerrendatutako produktu guztiek, **norbera babesteko ekipamendutzat (NBE)** hartzen direnek, araudi hau bete behar dute:*

- 2016/425 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko martxoaren 9koa, norbera babesteko ekipamenduei buruzkoa.
- UNE-EN 14126:2004 araua, norbera babesteko ekipamenduei buruzkoa.

***Produktu sanitarioei** dagokienez, Kontseiluaren 1993ko ekainaren 14ko 93/42/EEE Zuzentarauak, produktu sanitarioei buruzkoak, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko apirilaren 5eko 2017/745*

### Fondo del asunto

**QUINTO.-** Por acuerdo de 13 de octubre de 2021 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación del suministro de equipos de protección individual (EPIs) y material sanitario para hacer frente a la COVID-19 en los centros residenciales y centros de día para personas mayores y personas con discapacidad, dividido en dos lotes: guantes de nitrilo sin polvo (lote 1) y mascarillas FFP2 NR (no KN95) (lote 2).

Los pliegos establecen que el contrato se adjudique solo en función de criterios evaluables mediante la aplicación de fórmulas. En el caso concreto del lote 1 el único criterio es el precio. No se contemplan criterios sujetos a juicio de valor, por lo que los licitadores debían presentar solamente un archivo electrónico nº UNO y un archivo electrónico nº TRES.

El apartado 2 del pliego de prescripciones técnicas (PPT) define las especificaciones técnicas de los equipos de protección individual y material sanitario a suministrar:

*“Todos los artículos deberán ajustarse a la normativa vigente y requisitos técnicos que, con carácter de mínimos, se recogen en el Anexo del propio pliego. No se admiten variantes en los artículos ofertados.*

*El contrato se compone de equipos de protección individual y productos sanitarios.*

*Todos los productos relacionados en el presente pliego, considerados como **equipos de protección individual (EPI)**, han de ajustarse a la siguiente normativa:*

- Reglamento (UE) 2016/425 del Parlamento Europeo y del Consejo de 9 de marzo de 2016 relativo a los equipos de protección individual.
- Norma UNE-EN 14126:2004 relativa a Equipos de Protección Individual.

*Respecto a los **productos sanitarios**, deberán cumplir los requisitos establecidos en la Directiva 93/42/CEE del Consejo, de 14 de junio de 1993, relativa a los productos sanitarios, así como al Reglamento (UE) 2017/745 del*



Erregelamenduak (EB) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte”.

Parlamento Europeo y del Consejo de 5 de abril de 2017 sobre los productos sanitarios”.

Preskripzio teknikoaren agiriaren eranskinak zehazten du zer ezaugarri bete behar dituzte 1. sortako nitrilozko eskularruek:

El Anexo del PPT precisa las características que deben reunir los guantes de nitrilo sin polvo que son objeto del lote 1 del siguiente modo:

“Luzera eskumuturreko hezurrerainokoa izango da.

“La longitud será hasta hueso de la muñeca.

Adierazi egin beharko da norbera babesteko ekipamendu gisa, osasun produktu gisa edo produktu DUAL gisa eskaintzen bada. Kasu bakoitzaren arabera, adierazi zer dokumentazio aurkezten den.

Deberá señalarse si se oferta como EPI, como producto sanitario o como DUAL. En función de cada caso, señalar la documentación que acompaña.

1) **NBE** gisa eskaintzen bada, eskatuko da produktuaren etiketan “non medical” edo antzeko informaziorik ez agertzea. Era berean, produktuak test reporta gainditu beharko du honako hiru saiakuntza hauetan:

1) En el caso de que se oferte como **EPI**, se exigirá que en el etiquetado del producto no conste la información de “non medical” o similar. Asimismo, el producto deberá haber superado el test report en todos y cada uno de los tres ensayos siguientes:

-UNE-EN ISO 374-2 (sartzearekiko erresistentziaren determinazioa).

-UNE-EN ISO 374-2 (determinación de la resistencia a la penetración).

-UNE-EN ISO 374-4:2019 (degradazioarekiko erresistentzia).

-UNE-EN ISO 374-4:2019 (resistencia a la degradación).

-UNE-EN ISO 374-5:2016 (produktu kimikoen eta mikoorganismo arriskutsuen aurka).

-UNE-EN ISO 374-5:2016 (contra productos químicos y los microorganismos peligrosos).

2) **Osasun produktu gisa (I. mota)** eskaintzen bada; test reportak gutxienez honako hauek gainditu izana adierazi behar du:

2) En el caso de que se oferte como **producto sanitario (clase I)** el test report deberá reflejar como mínimo haber superado:

-UNE-EN 455-1:2000 (zulorik eza) eta

-UNE-EN 455-1:2000 (ausencia de agujeros) y

-UNE-EN 455-2:2009+A2:2013 (propietate fisikoak).

-UNE-EN 455-2:2009+A2:2013 (propiedades físicas).

3) **Produktu sanitarioaren edo produktu DUAL**aren kasuan, test reportaren txostenak egin den lotearen zenbakia erakutsi behar du; bestela, eskaintza EZ da onartuko. Txosten horretan entseaturako eta identifikaturako eskularru ereduak bat etorri behar du fitxa teknikoarekin eta gainerako dokumentuekin, eskatutako trazabilitatea frogatzeko.

3) En el caso de **producto sanitario o DUAL**, el informe del test report deberá mostrar el número del lote con el que se ha realizado, de lo contrario **NO** se aceptará la oferta. El modelo de guante ensayado e identificado en dicho informe deberá coincidir con el de la ficha técnica y demás documentos para que se demuestre la exigida trazabilidad.

4) Azkenik, eskularru **DUAL** bat bada, gutxienez osasun produkturako eta NBERako ezarritako guztia gainditu dela adierazi behar du testak”.

4) Por último, en el supuesto de tratarse de un guante **DUAL**, el test tendrá que reflejar haber superado como mínimo todo lo señalado para producto sanitario y para EPI”.

Preskripzio teknikoaren agiriko 3. apartatuaren arabera, produktuaren trazabilitatea definitzeko beharrezkoak diren ziurtagiri eta fitxa teknikoak

A tenor del apartado 3 del PPT, en el archivo electrónico nº UNO deberán aportarse los certificados y fichas técnicas que definan la



aurkeztu behar dira 1. artxibo elektronikoan:

*“Norbera babesteko ekipamenduen kasuan, agiri hauek guztiak aurkeztu beharko dituzte:*

- 1) Adostasun ziurtagiria, ekoizleak emana.
- 2) Erakunde jakinaraziak emandako B eta C2 moduluen ziurtagiriak; CE ziurtagiria.
- 3) Produktuaren eta bilgarriaren argazkia (lau aldeetako) izango duen fitxa teknikoa, bilgarria edo harekin batera doan dokumentazioa betetzen dela egiztatzeko balio duena, araudiak eskatzen duen informazioarekin batera (araua, CE marka, fabrikazio data, indarraldia, fabrikatzailea, enbalajeari buruzko informazioa, gaztelaniaz eta/edo eskainiera-ingelesez irakur daitekeena. etab.).
- 4) Dagokion norbera babesteko ekipamenduen (NBE) arauaren araberrako test reporta: bertan, arauan eskatzen diren parametroen neurketen emaitzak bilduko dira.

*Osasun produktuen kasuan, agiri hauek guztiak aurkeztu beharko dituzte:*

- 1) Adostasun-ziurtagiria, ekoizleak emana CE markaketarekin batera.
- 2) Azken produktuaren UNE EN 13795 arauaren araberrako test report bat, bertan eskatutako parametroen neurketen emaitzak bilduko dituen. Saiakuntza-testak nahitaez adierazi beharko du hura egiteko erabili den lotearen zenbakia.
- 3) Fitxa teknikoak produktuaren eta bilgarriaren argazkiak izan beharko ditu lau aldeetan, enbalajea edo erantsitako dokumentazioa betetzen dela argi eta garbi egiaztatu ahal izateko, araudiak eskatzen duen informazioarekin (CE marka, araudia, fabrikazio-data, indarraldi-data, fabrikatzailea, enbalajeari buruzko informazioa, gaztelaniaz eta/edo espainiera-ingelesez irakur daitekeena, etab.).
- 4) AMPS lizentzia (Espainia).
- 5) EC-REP, hala badagokio”.

Hogeita bat enpresak aurkeztu zuten eskaintza 1. sortarako, eta hogeita hiru enpresak, berriz, 2. sortarako. FARMADOSIS SL enpresak bi sortetarako egin zuen.

Azaroaren 2an, mahaiak BAT zenbakiko artxibo elektronikoak ireki zituen, eta horietan bildutako

trazabilidad del producto:

*“En el caso de EPIs, deberán presentar todos y cada uno de los siguientes documentos:*

- 1) Certificado de conformidad emitido por el productor.
- 2) Certificados módulos B y C2 emitidos por Organismo Notificado; Certificado marcado “CE”.
- 3) Ficha técnica que deberá incluir, entre otras, fotografía del producto y del embalaje que acompaña por los cuatro lados, que permita comprobar de forma nítida el cumplimiento ya sea del embalaje o la documentación que acompaña, con la información que exige la Normativa (marcado CE, Normativa, fecha fabricación, fecha vigencia, fabricante, información del embalaje legible en idioma español y/o español-inglés, etc.).
- 4) Test report según norma del EPI correspondiente, donde se recojan los resultados de las mediciones de los distintos parámetros exigidos por la misma.

*En el caso de productos sanitarios, deberán presentar todos y cada uno de los siguientes documentos:*

- 1) Certificado de conformidad emitido por el productor junto marcado CE.
- 2) Test report según norma UNE EN 13795 del producto final, donde se recojan los resultados de las mediciones de los distintos parámetros exigidos por la misma. El test de ensayo deberá necesariamente reflejar el número del lote con el que se ha realizado el mismo.
- 3) Ficha técnica que deberá incluir fotografía del producto y del embalaje por los cuatro lados, que permita comprobar de forma nítida el cumplimiento ya sea del embalaje o la documentación que acompaña, con la información que exige la Normativa (marcado CE, Normativa, fecha fabricación, fecha vigencia, fabricante, información del embalaje legible en idioma español y/o español-inglés, etc.).
- 4) Licencia AMPS (España).
- 5) EC-REP en su caso”.

Presentaron oferta veintiuna empresas para el lote 1 y veintitrés para el lote 2. FARMADOSIS S.L. lo hizo para ambos lotes.

El 2 de noviembre la mesa procedió a la apertura de los archivos electrónicos nº UNO y a la vista de



dokumentazioa ikusita, erabaki zuen 1. sortako hemezortzi lizitatzailerari eta 2. sortako hamaseiri eskatzea zuzentzeko kasuan kasu falta ziren dokumentuak.

FARMADOSIS SLri hiru eguneko epea eman zitzaion 1. sortako EC-REC agiria aurkez zezan, osasun-produktu gisa, eta bilgarriaren argazki argiagoak bidal zitzaion. Halaber, berariaz ohartarazi zitzaion aipatu agiriak eskaintzak aurkezteko azken eguna eta ordua baino lehen igorria izan behar zuela.

Azaroaren 9an, mahaiak zuzenketa errekerimenduei erantzunez jasotako dokumentazioa aztertu zuen, eta 1. sortako hamabi eskaintza eta 2. sortako zortzi eskaintza prozeduratik kanpo uztea erabaki zuen. FARMADOSIS SL 1. sortatik kanpo uzteko arrazoia izan zen ez zituela aurkeztu zuzentzeko errekerimenduan eskatutako dokumentu guztiak, eta honako hau dio:

*“Dokumentazioa aurkeztu da, baina fitxek, testek eta ziurtagiriek ez dute eskatutako trazabilitatea betetzen. NBE gisa baliozkotzeko saiakuntzek erreferentzia bat dute; osasun-produktu gisa baliozkotzekoek beste bat; eta bilgarriak ez du inolako erreferentziarik”*

Azaroaren 11n, mahaiak 1. sortatik kanpo utzi ez ziren bederatzita lizitatzailerak eta 2. sortatik kanpo utzi ez ziren hamabost lizitatzailerak aurkeztutako HIRU zenbakidun artxibo elektronikoak ireki zituen. Artxibo elektroniko horiek eskaintza ekonomikoak bildu behar zituzten, eta, 2. sortaren kasuan, baita formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen gainerako adjudikazio irizpideei buruzko dokumentazioa ere. Halaber, adjudikazio proposamenak egin aurretik, mahaiak erabaki zuen onartutako eskaintza guztiak Erakunde Publikoen Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoetara bidaltzea, preskripzio teknikoaren agirian eskatutako baldintzak betetzen zirela egiaztatzeko.

la documentación contenida en ellos acordó requerir a dieciocho licitadores del lote 1 y a dieciséis del lote 2 para que subsanasen la omisión de los documentos que en cada caso se indicaban.

A FARMADOSIS S.L. se le concedió un plazo de tres días para que aportara el documento EC-REC del lote 1 como producto sanitario y fotografías más nítidas del embalaje, con la advertencia expresa de que la referida documentación deberá haberse emitido antes de la fecha y hora límite de presentación de ofertas.

El 9 de noviembre la mesa analizó la documentación recibida en respuesta a los requerimientos de subsanación y acordó rechazar doce ofertas del lote 1 y ocho del lote 2. La exclusión de FARMADOSIS S.L. del lote 1 se basa en que no aportó todos los documentos solicitados en el requerimiento de subsanación y en que:

*“Se ha aportado documentación, pero las fichas, test y certificados no cumplen con la trazabilidad exigida. Los ensayos como EPI tienen una referencia, los ensayos como producto sanitario tienen otra referencia y el embalaje no contiene ninguna referencia”.*

El 11 de noviembre la mesa procedió a la apertura de los archivos electrónicos nº TRES presentados por los nueve licitadores no excluidos del lote 1 y por los quince no excluidos del lote 2, que debían contener las ofertas económicas y, en el caso del lote 2, la documentación relativa a los demás criterios de adjudicación evaluables mediante la aplicación de fórmulas. Asimismo, antes de realizar las propuestas de adjudicación la mesa acordó remitir todas las ofertas admitidas a los servicios técnicos de la Dirección General de Organismos Públicos a fin de comprobar el cumplimiento de los requisitos exigidos en el PPT.



Azaroaren 16an, mahaiak bere egin zuen zerbitzu teknikoek egindako txostena, eta erabaki zuen 1. sortako hiru enpresa eta 2. sortako lau enpresa prozeduratik kanporatzea, beren eskaintzak ez zetozelako bat preskripzio teknikoaren agirian ezarritakoarekin. Jarraian, gainerako eskaintzak goitik beherako hurrenkeran sailkatu zituen, eta, 1. sortaren kasuan, erabaki zuen kontratazio organoari BARNIA IMPORT MÉDICA S.Aren aldeko adjudikazio proposamena bidaltzea.

**SEIGARRENA.-** FARMADOSIS SL enpresak, bere errekurtsoan, aurkaratutako erabakia deuseztatzeko eta jarduketak produktuaren dokumentazio teknikoa onartzeko unera atzera eramateko eskatu zuen, ondoren balorazio ekonomikoa egiteko.

Alegatzen du 1. sortan eskainitako produktua produktu dual gisa eskaini zela (NBEa eta osasun-produktua) eta bi estandarren erreferentzien trazabilitate-ziurtagiria aurkeztu zuela; beraz, 1. sortan produktu dualari eskatzen zaizkion ezaugarriak betetzen ditu. Laburbilduz, trazabilitatea ziurtagiri horrekin egiaztatuta geratzen dela uste du.

Baina Departamentuak errekurtsoari buruz emandako txosten teknikoak ez da hori ondorioztatzen. Txosten horretan, errekurtsogileak aurkeztutako dokumentazioa berriz aztertu ondoren, puntu-puntu berresten dira, zehatz-mehatz, preskripzio teknikoaren agirian ezarritakoaren ez-betetzeak, bere eskaintza prozeduratik baztertzeko erabakigarriak direnak.

Hasteko, produktu dual gisa eskainitako eskularrua (NBE eta osasun-produktua) ez denez Europar Batasunean fabrikatzen, Txinan baizik, preskripzio teknikoaren agiriak behartu egiten du Europako Ordezkaritza Baimendu batek emandako EC-REP deiturikoa aurkeztera. Errekurtsogileak ez zuen dokumentu hori sartu BAT zenbakidun artxibo elektronikoan; hiru eguneko epean aurkezteko eskatu zitzaion, baina ez zuen aurkeztu. Beraz, omisio hori berez nahikoa da bere

El 16 de noviembre la mesa hizo suyo el informe emitido por los servicios técnicos y acordó excluir a tres empresas del lote 1 y a cuatro del lote 2, por no ajustarse sus ofertas al PPT. Seguidamente clasificó las ofertas restantes por orden decreciente y acordó remitir al órgano de contratación las correspondientes propuestas de adjudicación, en el caso del lote 1 en favor de BARNIA IMPORT MÉDICA S.A.

**SEXTO.-** En su recurso FARMADOSIS S.L. solicita la anulación del acuerdo impugnado y la retroacción de las actuaciones al momento procedimental oportuno de admisión de la documentación técnica del producto, para la posterior valoración económica.

Alega que el producto ofertado en el lote 1 fue ofertado como producto dual (EPI y producto sanitario) y que aportó certificado de trazabilidad de las referencias de ambos estándares, cumpliendo por lo tanto con las características requeridas al producto dual en el lote 1. En definitiva, considera que la trazabilidad queda acreditada con la aportación de dicho certificado.

No es eso lo que se desprende del informe técnico emitido por el departamento acerca del recurso, en el que tras una nueva revisión exhaustiva de la documentación aportada por la recurrente se confirman punto por punto, de forma detallada, los incumplimientos del PPT determinantes de la exclusión de su oferta.

Para empezar, dado que el guante ofertado como producto dual (EPI y producto sanitario) es un guante no fabricado en la Unión Europea sino en China, el PPT obliga a presentar el denominado EC-REP expedido por un Representante Europeo Autorizado. La recurrente no incluyó este documento en el archivo electrónico nº UNO, fue requerida para que lo hiciera en el plazo de tres días y tampoco lo presentó, por lo que esta omisión es por sí sola suficiente para acordar la



eskaintza baztertzeko. Izan ere, administrazio klausula partikularren agiriaren 28.2 apartatuan eta ezaugarrien koadroaren 18. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, eskatutako preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo ditu kontratazio mahaiak.

Preskripzio teknikoen agiriak eskatzen du, halaber, produktuaren eta bilgarriaren lau aldean argazki argia aurkeztea. FARMADOSIS SL enpresak, BAT zenbakidun artxibo elektronikoa, bilgarrien aldean argazki oso lausoak aurkeztu zituen, urrutitik ateratakoak; beraz, argazki argiagoak aurkezteko eskatu zitzaion. Zuzentzeko izapidean aurkeztu zituen argazkien arabera, bilgarriak adierazten du eskularruak gainditzen dituela NBEetarako eta osasun-produktuetarako eskatutako entseguak; hala ere, ez du adierazten eskaintako eskularru zehatzaren identifikazio erreferentzia, eta, beraz, ezin da osatu aurkeztutako dokumentu guztiek izan behar duten trazabilitatea.

Eta bilgarriak eskularruaren erreferentziarik ez izateaz gain, NBE gisa baliozkotzeko aurkeztutako dokumentuek erreferentzia bat dute, eta osasun-produktu gisa baliozkotzeko emandakoek beste bat; beraz, ezin da ziurtatu laborategi batean NBE gisa baliozkotzeko probatutako eskularrua eta beste laborategi batean osasun-produktu gisa baliozkotzeko probatutakoa eskularru berdina direnik.

Kontratazio organoak ez bezala, errekurtsogileak ez du argudiatzeko ahaleginik egin, eta ez du froga egokirik aurkeztu, Auzitegia konbentzitzeko mahaiak oker baloratuko zukeela aurkeztutako dokumentazioa, eta dokumentazio horrek egiaztatuko lukeela preskripzio teknikoen agirian ezarritako eskakizun teknikoak betetzen dituela.

Hartara, departamentuko txostena ikusita, ez dago zalantzarik preskripzio teknikoen agirian ezarritako baldintzak ez direla betetzen, eta hori egiaztatzeko ez da inolako balio judiziorik egin

exclusión de su oferta. En efecto, de acuerdo con lo previsto en el apartado 28.2 del PCAP y en el 18 del cuadro de características, las propuestas que no cumplan las prescripciones técnicas exigidas serán excluidas por la mesa de contratación.

El PPT exige también presentar una fotografía nítida del producto y del embalaje por los cuatro lados. FARMADOSIS SL incluyó en el archivo electrónico nº UNO unas fotografías muy alejadas y nada claras de los distintos lados del embalaje, por lo que fue requerida para aportar otras más nítidas. En las que presentó en el trámite de subsanación el embalaje informa que el guante supera los ensayos exigidos para EPI y para producto sanitario, pero no indica la referencia identificativa del concreto guante ofertado, y por tanto no es posible completar la trazabilidad que debe reunir el conjunto de los documentos presentados.

Y aparte de que el embalaje no contiene la referencia del guante, resulta que los documentos aportados para validarlo como EPI tienen una referencia y los aportados para validarlo como producto sanitario tienen otra distinta, por lo que no es posible asegurar que el guante ensayado en un laboratorio para EPI sea el mismo guante que el ensayado en otro laboratorio distinto para producto sanitario.

A diferencia del órgano de contratación, la recurrente no hace el necesario esfuerzo argumental ni aporta prueba apta para tratar de convencer al Tribunal de que la mesa habría valorado erróneamente la documentación presentada y de que ésta acreditaría el cumplimiento de las exigencias técnicas establecidas en el PPT.

Por tanto, a la vista del informe del departamento, el incumplimiento de estas exigencias queda fuera de toda duda, y para constatarlo no es necesario realizar ningún juicio de valor sino, primero,





behar; nahikoa da eskaintza eta preskripzio teknikoen agiria alderatzea eta, ondoren, agirietan ezarritako ondorio juridikoa ezartzea, alegia, prozeduratik kanpo uztea.

Kontratazio Alorreko Errekurtsoen Euskadiko Organo Administratiboak 2019ko irailaren 13ko 144/2019 Ebazpenean dioen bezala, kontratazio organoari dagokio horniduraren xede diren produktuen ezaugarri teknikoak zehaztea, SPKLren 28.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ezin dira erlatibizatu, ezin dira alde batera utzi, ez eta kontratua adjudikatu ere horiek betetzen ez dituen eskaintza bati.

**ZAZPIGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarririk edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

### **ERABAKITZEN DU**

FARMADOSIS SL enpresak kontratazio arloan aurkeztutako errekurtso berezia ezatea.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

llevar a cabo un contraste objetivo de la oferta con el PPT y, en segundo lugar, aplicar la consecuencia jurídica ordenada por los pliegos, que no es otra que la exclusión del procedimiento.

Como recuerda el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de Euskadi en su Resolución 144/2019, de 13 de septiembre, las características técnicas de los productos objeto de suministro corresponde determinarlas al órgano de contratación de acuerdo con lo establecido en el artículo 28.1 LCSP, y no cabe relativizarlas, ni obviarlas, ni adjudicar el contrato a una oferta que las incumple.

**SÉPTIMO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### **ACUERDA**

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por FARMADOSIS S.L.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2022ko otsailaren 11a / San Sebastián, 11 de febrero de 2022.**